



## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza

Igandea  
2009-12-20

VII. URTEA 1887. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA


WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Triangulon herriko dendarien produktuak eta era guztietako jakiak aurki zitezkeen atzokoan. REBEKA CALVO

## GABONETAKO AZOKA BEREZIA ODOLKI LEHIAKETA ETA GUZTI

**TOLOSA** Urteko azken Azoka Berezian jende ugari elkartu zen; Ormaiztegiko Iñaki Camposek irabazi zuen Odolki Lehiaketa 4



Herritar eta eragile ugari babestu dute manifestazio deialdia. HITZA

## Manifestazio isila egingo dute Aiztondo bailaran

**POLITIKA** Presoen eta iheslarien senideek eta lagunek deitu dute martxa hilaren 31rako 5

**AITOR MENDILUZE** BERTSOLARIA

«Kartzelako saioan,  
goizekoan, azken  
bertsoak alde egin zidan»

**IRURA** Euskal Herriko Txapelketa Nagusian egindako lanarekin «oso gustura» agertu da 6

DONOSTIA: Hernani, 13  
BILBO - GASTEIZ  
Zuloaga Bitxitegiak: Galdakao eta Zornotza  
www.eguzkilorejya.com

EGUZKILORE  
Zuloaga

## Agurra



### » Uzturretik

Andu Martinez de Rituerto

Hitzatik sei astez behin Uzturreko gain honetara igo eta bertatik ikusten nuena kontatzeko gonbitea egin zidatenetik hiru urte pasa dira honez gero. Egia esan

gehienetan kanpora baino, barrura begira jarri izan naiz idaztea egokitu zaidan bakoitzean. Ez naitaio Tolosaldeko egunerokotasunari lotu; uanean uneko nire barreneko kezkei erantzuna emateko baliatu izan ditut idatzi hauek, eta zinez esperientzia aberasgarria izan dela. Idazkuntzako teknikak eta normalkuntzaren bilaketa etengabe eta amaitezinean dabilen gure hizkuntza kazeta batean idazteko adina ez menperatzeak dezente kezkatu ninduen hasieran, denborarekin hanka-sartzeak egiteak sortzen duen lotsa galdu eta akatsak-akats hor ibili naiz hi-

tzak nola edo hala josiz. Formak garrantzia handia du, zalantzarik gabe, eta ni neure mugekin hizkuntza zuzen eta txukun erabiltzen saiatu naiz, lortu izana, beste kontu bat da; baina idazteak, edozein gaiaren inguruan buruan nuen irudi lauso eta zirriborrotua doitzen eta zehazten lagundu dit. Badirudi edozein gaiaren gaineko iritzia berez sortzen zaigula, alde programatuta bageunde bezala. Iritzi hori paperera pasatzen hasterakoan heldulekuen tinkotasuna frogatzen duzu eta ariketa interesgarria da hasieran buruan zenuen irudi lanbrotsu horrek hausnarketaren ondoren forma erabat desberdina hartzen duela ikusteak. Horixe bada, guztioi paber zuriaren aurrean jartzeko gon-

bitea egiten dizuet, ziur esperientzia harrigarria suertatuko zaizue.

Agurra izanik ere, ezin aipatu gabe utzi azken asteetan oso present izan ditugun bi gai. Herri bixia gurea. Ahotsa, hitza, doinu eta erimen lanabesxumeekin aritzen diren artisausortzaile batzuen jardunak halako interesarekin begiratzen diona. Hitzten eta doinuek jolas dialektikoak hainbeste pertsona biltzea eta halako gozamena sortaraztea ikaragarria da, ez dut uste munduan halako besterik egongo denik. Zorionak Maialen eta ea txapelketatik kanpo horrenbeste bertsozale izaten jarraitzen ote dugun, merezi du eta!

Madrilen, beste hainbatetan bezala, berriz ere gezurra ari du.

Orain dela zazpi urte hasitako bigabekeri ankerraren jarraipen gordina bizi izan dugu azken aste honetan. Euskaraz idatziriko kazeta independente, anitza eta zabalaren Egunkaria, eta hau egiten zutenen delitu bakarra euskaraz eta euskararen herriarentzako idaztea izan zen.

Euskarak, hamaika eraso jasan behar izan ditu historian zehar; badakitelako Herria eta Hizkuntza banaezinak direla guretzat. Horregatik, Euskaldunok nahi dugun tokian jaio gaitzake, hizkuntzak egiten gaitu eta euskaldun! Egunkaria eta auzipetuak libre!

Plazer bat izan da eta mila esker hitz hauek irakurtzera gerturatu zaretzen guztioi. Ondo bizi.

## K Komikia

## Gorka Salaberria



## Giro ezin hobea Gabonetako Azoka Berezian

PABLO ALBERDI

Atzoko eguzkiak egundoko gabon giroa sortzea lagundu zuen. Egun hauetako elurteak eta hotzak oso puntu politean utzi digute herria, eta atzoko argiek eta eguzkiak hau dena azalarazten lagundu zuten.

Giroa ezin hobea izan zen atzoko Gabonetako Azoka Berezian,

eta alde zaharreko puntu guztietan ikusi ahal izan genuen giro beroa. Zerkausian oso eskaintza zabalaren izan zen. Barazki ugaria, fruta zerrenda zabalak, gaztak, ogiak eta postreak ere izan ziren. Hauekin batera Gabonetako apaingarri asko Berdura plazan, artisausortzaileak San Frantzisko pasealean

postreak, ardoak, olioak edota gaztak ikusi ahal ziren. Plaza Zaharrean txerrikiak, txerriak, zaldiak, pottoak eta astotxoak izan ziren.

Aipatzekoa ere Triangulo plazan ikusitako liburu aurkezpena, jakiek eta kirolarekin erlazionatutakoa, eta Zerkausio eskaintza paregabekoaren oso lotuta ere

bai. Datozen egunetan elurraren eragina sumatzea espero dugu. Dirudenez oso eragin positiboa izan dezake elurak, bai epe motzean eta baita epe luzean ere. Barazkiak asko hobetuko dira elurrarekin eta lurra bera ere garbitasun puntua somatuko du hotza eta elurra direla eta.

### » ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.
<b>Landareak</b>		
Azalea	7,00	10,00
Xarbota	4,00	6,00
Erromeroa	4,00	6,00

### BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak		
Onddoa	14,00	24,00
Ziza horia	14,00	--

## Etorkinen Eguna

### » Iritzia

**Miren Zeberio**  
Ereite elkarte multikulturaleko kidea

**N**azioarteko egunen ospakizunek pentsamendu kontrajarririk sorrarazi ohi dizkide. Argi dago egun bateko aldarrikapenak ez duela mundua aldatuko (32 egunetakoak izan behar ote dute?) eta eguneroko jardunean landu ezean, jai dugula hainbat eta hainbat eremutan.

Bestalde, beharbada ez da sobe-  
ran egongo urtean behin, gutxien-  
ez, aldatu nahi genituzkeen egoe-  
ra horiek plazaratu eta guztioi go-  
goraztea berdinetan jarraitzen du-  
gula, edo asko dagoela oraindik  
egiteko.

Abenduan egun hauetako ba-  
tzuk baditugu: Euskararen Eguna,  
Esklabutza Abolizioarena, Giza  
Eskubideena... Eta bada beste  
batere, aurtengoan ia ia "opariare-  
kin" iritsi zaiguna.

Izan ere, aldarrikapen edo ospa-  
kizun honekin zerikusia duen le-  
gea aldatu berri dute. Ez da lehe-  
nengo aldia eta, ziur aski, azkena  
ere ez da izango.

Lege honek pertsonak multzo-  
katzen ditu: nolako egoera admi-  
nistratiboa, halako eskubideak  
(edo eskubide eza, hobeto esanda).  
Eta ilegaltasunari aurre egiteko  
maskara jarri, ilegaltasuna bide-  
katu besterik ez du egiten. Lege  
honek klandestinitatera bultzat-

tzen ditu pertsonak. Eta gaur egun,  
klandestinitatea ez da soilik admi-  
nistratiboa. Ez dira existitzen es-  
kubideei dagokienez, ezin dira  
kontratatu. Eta lege honek egiten  
duena, behin eta berriz, klandesti-  
nitate horretatik egoera adminis-  
tratu erregularra (eskubideak)  
eskuratzeko aukerak murriztea da.

Iritsi izan zaizkigu Irunen edota  
Oreretan lokutorio zein dantza-  
tzeko musika latino jartzen duten  
lokaletan egindako sarekaden be-  
rri. Orain, gero eta gertuagoko be-  
rriak ditugu: Tolosan bertan, duela  
aste batzuk, San Frantsisko pasea-  
lekuan, nazionalak hainbat emak-  
ume atxilotu zituzten egun argi-  
tan, adineko pertsonen zaintzan  
aritzen zirenak.

Politikariak beti lotzen dute im-  
migratioaren gaia segurtasunare-  
kin. Baina zer gertatzen da kontra-  
ko norabidean?

Seguru sentitzeko aukera izan-  
go al dute noizbait klandestinitate-  
an bizitzera behartuta dauden  
hainbeste eta hainbeste pertsona?  
Edo gure aiton-amonak paseatze-  
ra ateratzeko beldurrez ibiltzen ja-  
rraitu beharko dute?

Ostiralean izan zen Etorkinen  
Eguna, abenduan, beste hainbat  
bezala. Neure buruari galdetzen  
diot urteko garai honetan ezartze-  
arena kasualitatea den, edo urteak  
joan eta urteak etorri, aldarrikapen  
hauek hotz uzten gaituztelako  
izan ote zen.



Ereite antolatutako aurtengo Adiskidetasunaren Txapelketaren une bat. HITZA

### B Blogteka info

#### Maroko errudun Espainia arduradun

Duela urtebete, Nazio Batuen  
Erakundeak (NBE) Christopher  
Ross Estatubatuarrak Mendebal-  
deko Sahararako gatazkarako  
ordezkari berezi izendatu zue-  
nean, eta bereziki urte honen hasie-  
rian, magreben zehar honek  
egin zuen errondaren ondoren,  
Marokoko gobernuaren eta  
fronte polisarioaren artean hain-  
bat hilabetetan etenda zeuden  
negoziazioak desblokeatuko zi-  
renaren itzaropena piztu zen ga-  
tazkaren ondorioz latzenak  
pairatzen dituzten Mendebalde-  
ko Saharako lurralde okupatue-

tako eta Tindouf-eko (Aljeria)  
errefuxiatu kanpamenduetako  
sahararren artean.

Zoritxarrez, azken hilabete  
hauetan, itzaropen izpi horiek  
Marokoko gobernuaren jarrera  
oldarkor eta bortxazkoaren era-  
ginez, bertan behera gelditu dira  
nazioarteko herrialde botere-  
tsuenen isiltsun eta konplizitate  
osoaren babespean.

Marokoko indar okupatzaile-  
ak Mendebaldeko Saharako jato-  
rriko biztanleen giza eskubide-  
en aurkako erasoan larriagotze-  
en testigantza etengabeak dira.

**Harea eskuetan**  
[http://www.tolosaldekohitza.info/  
blogak/sahararekin/](http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/sahararekin/)

## Krisi ekonomikoa eta immigrazioa

### » Iritzia

**Saad Malec Subeir**  
Jatorkin elkarte kidea

**S**egituan agurtuko dugu urtea,  
immigratioaren mundua kol-  
patzen duten gertakariak nagusi  
izan diren urtea, hain zuzen. Urtea  
gertakari jakin batekin hasi zen eta  
gertakari haren ondorioak bizi di-  
tugu oraindik. Zenbait iturriek  
oraindik ere okerrena iristear da-  
goela diote: krisi ekonomikoa da.

Krisiak espero ez zuten preka-  
rietate egoera batean utzi ditu fa-  
milia asko, batez ere etorkinen fa-  
miliak. Tolosaldean magrebatarren  
%90 ez du lanik. Hasieratik krisi  
ekonomikoa etorkinekin lotu nahi  
izan zuten boterearekin bat egiten  
duen komunikabideen bidez.  
Banketxeek ezin dituzte maile-  
guak eman, hauxe zabaldu zuten  
komunikabideek, eta hori etorki-  
nei diru gehiegi utzi zietela eta  
hauek euren herrietara diru horre-  
kin itzuli direlako zen horrela, ko-  
munikabideek zabaldu zutenaren  
arabera. Baina segituan utzi behar  
izan zuten gidoi hau, izan ere he-  
rritarrek zintzotasuna eskatzen  
zuten. Era berean, gertatzen ari-  
zena ezagutzeko eskubidea alda-  
rrikatu zuten.

Orain egun gutxi jarri zuten in-  
darrean atzeritarren lege berria;  
zortzi urteetan laugarrenoz be-  
rritu dute legea. Berrikuntza hone-  
tan krisi ekonomikoaren ondorio-  
ak dira nagusi. Galdera hauxe da:  
zergatik aldatzen du gobernu ba-  
tek legea aldi jakin bat iristen dene-  
an? Ez dut uste horrenbeste berri-  
kuntzen atzean etorkinen arazoei  
irtenbidea emateko nahia dagoe-  
nik. Jarraian egindako bi berri-  
kuntzen arteko denbora urriaren  
ezinezkoa da emaitzak aztertu  
ahal izatea edo lehen berrikuntza-  
ren hutsegiteak antzematea ere.  
Batzen iritzi legea nahi duten  
neurriak prestatzen dute. Gertaka-  
ri honek etorkinen munduari era-



Egun Tolosako Sevendenea ez da lehen harrerako zentroa. I. TERRADILLOS

giten dio, baina ez etorkinei zuzen-  
nean, pertsonalki, eurekin lan egi-  
ten duten elkartei baizik. Azken  
zortzi urteetan Eusko Jaurlaritzan  
etorkinen saileko zuzendari-  
za etorkina den pertsona batek  
hartu izan du, talde honen egoera-  
ren eta gorabeheren jakituna den  
neurrian. Omer Oke izan zen lehe-  
na, Benin-ekoa, Peruko Roberto  
Marro ondoren, baina gobernu al-  
daketaekin honek ez du horrela  
jarraituko. Aurreko gobernuare-  
kin etorkinak ziren, euren elkarte-  
en bidez, sentsibilizazio kanpai-  
nak eta laguntzak kudeatzen zi-  
tuztenak. Elkarteen tamaina edo  
eragin-eremua ez zen egitasmoak  
esleitzeko irizpide diskriminatzaile-  
a; hala ere, hemendik aurrera on-  
dare asko duten eta hiru lurralde  
historikoetan ordezkaritza duten  
Gobernuz Kanpoko Erakundeek  
bakarrak jo ahal izango dute Immi-  
grazio Sailaren programa eta  
deialdi desberdinetara. Ezaugarri  
hauek betetzen dituzten GKE  
asko gobernu alderdi politikoe-  
tatik gertu dauden entitateak dira,  
PSO Eren inguruko *Solidaridad In-  
ternacional* edo banketxeekin eta  
finantza-erakundeekin lotura du-  
ten fundazioak bezala.

Politika hau geroz eta urriagoa

den espiritu asoziazionista suntsi-  
tuko du eta herri, auzo zein eskual-  
de mailako elkarteen amaiera eka-  
rriko du.

Dagoeneko gizarte mailan mu-  
rritzetak dakartzen urtea hasiko  
dugu. Gazteen zentroak kudea-  
tzen dituzten hiru aldundiak larri-  
tu egin dira jada, gainezka daude  
eta ezin dituzte gazte gehiago har-  
tu baliabiderik ez dutelako. Aldun-  
diek darabilten argudioa da, auto-  
nomia-erkidego bakoitzarentzat  
kupo bat egon behar duela (Gipuz-  
koako Foru Aldundiak 200 gazte  
hartzen ditu, Burgoskoak 20 baka-  
rrirenak. Elkarteen tamaina edo  
eragin-eremua ez zen egitasmoak  
esleitzeko irizpide diskriminatzaile-  
a; hala ere, hemendik aurrera on-  
dare asko duten eta hiru lurralde  
historikoetan ordezkaritza duten  
Gobernuz Kanpoko Erakundeek  
bakarrak jo ahal izango dute Immi-  
grazio Sailaren programa eta  
deialdi desberdinetara. Ezaugarri  
hauek betetzen dituzten GKE  
asko gobernu alderdi politikoe-  
tatik gertu dauden entitateak dira,  
PSO Eren inguruko *Solidaridad In-  
ternacional* edo banketxeekin eta  
finantza-erakundeekin lotura du-  
ten fundazioak bezala.

Politika hau geroz eta urriagoa  
den espiritu asoziazionista suntsi-  
tuko du eta herri, auzo zein eskual-  
de mailako elkarteen amaiera eka-  
rriko du. Dagoeneko gizarte mailan mu-  
rritzetak dakartzen urtea hasiko  
dugu. Gazteen zentroak kudea-  
tzen dituzten hiru aldundiak larri-  
tu egin dira jada, gainezka daude  
eta ezin dituzte gazte gehiago har-  
tu baliabiderik ez dutelako. Aldun-  
diek darabilten argudioa da, auto-  
nomia-erkidego bakoitzarentzat  
kupo bat egon behar duela (Gipuz-  
koako Foru Aldundiak 200 gazte  
hartzen ditu, Burgoskoak 20 baka-  
rrirenak. Elkarteen tamaina edo  
eragin-eremua ez zen egitasmoak  
esleitzeko irizpide diskriminatzaile-  
a; hala ere, hemendik aurrera on-  
dare asko duten eta hiru lurralde  
historikoetan ordezkaritza duten  
Gobernuz Kanpoko Erakundeek  
bakarrak jo ahal izango dute Immi-  
grazio Sailaren programa eta  
deialdi desberdinetara. Ezaugarri  
hauek betetzen dituzten GKE  
asko gobernu alderdi politikoe-  
tatik gertu dauden entitateak dira,  
PSO Eren inguruko *Solidaridad In-  
ternacional* edo banketxeekin eta  
finantza-erakundeekin lotura du-  
ten fundazioak bezala.

digitala  
h  
@

Astelehena  
abendua 21  
12:00etan

## MARTXELO OTAMENDI

kazetariarekin  
elkarrizketa digitala



HITZAren erredakzioan izango da zuzenean zuen galderak erantzuteko.  
Aurrez ere zuen galderak bidal ditzakezue gure webgunean.



## Bonberenea 12. urteurrena ospatzen

**KULTURA** ■ Gabonetako Azoka Bereziari festa giroa jartzen lagundu zioten atzokoan Bonbereneakoek. Izan ere, euren 12. urteurrena ospatzeko ekitaldi bereziak ari dira antolatzen eta atzokoan kaleak alaitzea egokitu zitzaizien. Hain zuzen ere, Bonberenea txarangakok jarri zuten musika eta hauen doinuetan aritu ziren dantzan Tolosako erraldoiak. Buruhandiak batera eta bestera ibili ziren korrika jendearen atzetik. Kalejira Bonberenean bertan amaitu zuten, eta han bazkaria egin zuten ondoren. Urteurreneko ospakizunak, ordea, ez dituzte amaitu. Gaur zinema izango da Bonberenean, 17:00etan, eta asteazkenean Okupazio Eguna ospatuko dute. **EZEIZA**

**Gastronomia** » San Blas elkarteak antolaturiko Odolki Lehiaketan Ormaiztegiko Iñaki Campos izan zen garaile.

**INIGO TERRADILLOS**

Hotz esnatu zen atzo eguna, oso hotz, Siberiatik zetorkigun haize hotzaren eraginez nonbait. Goizean goizetik zero azpitik markatzen zuten termometroek, eta muga hori gainditu zuten arren merkurioak lan handia izan zuen malda igotzeko. Beharrean aritu behar zutenentzat ez zegoen aitzakiarik, eta soberan ez ziren eskularru, bufanda edota buruko gorroaz babesturik utzi zuten atzean etxeko epeltasuna. Ohikoa baino gehiago ziren horiek, izan ere, larunbateroko azoka Gabonetako Azoka Berezi bihurtu zen atzokoan, betiko eskaintza biderkatuz. Mugimendua, beraz, lehen orduetatik nabari zen Tolosako kaleetan, azoka herritar eta bisitariarentzat behar bezala prestatu behar baitzen. Eta lanean zirenak goiz hasi baziren, erosleak ere ez ziren berantiar ibili, lehena izateak dituen abantailaz jakitun.

Bazen zer aukeratua herriko hiru guneean zabalduko mahaietan. San Frantzisko ibiltokian jakiak eta artisauek eginiko lanak jarri zituzten eskuragai, Triangulon era guztietako jakiak eta baita herriko dendarien produktuak eta Plaza Zaharrean animaliak. Hau guztia gehitu zitzaion Zerkausion, Berdura Plazan eta Euskal Herria Plazan izan ohi den eskaintzari.

## Hotzari aurre eginez, jendetza izan da Gabonetako Azoka Berezian

**Giroa berotuz**

Pixkanaka jendea azokara gerturatu joan zen, eta eguerdirako jendetza zebilen kalean gora eta behera, batean ikusi, eta bestean dastatu, eta baita erosten ere. Tartean, baziren postu bereziak, esklerosi anizkoitza dutenei laguntzeko jarritakoa, esaterako.

Berezitasuna, baita Berdura Plazan topa zitekeena ere, izan ere, alkatxofen postua jarri zuten, eta hauek plantxan prestatzen egon ziren Roberto Ruiz eta Sonia Tapia «arrakasta handiarekin».

**Ormaiztegi saria**

San Blas elkarteak antolatuta, bestealde, Odolki Lehiaketa egin zuten Triangulon. Hamalau harategik hartu zuten parte, eta Ormaiztegiko Iñaki Camposentzat izan zen lehen saria. Bigarren saria, berri, Orioko Kepa Loidik eman zuen.


Nerea Letamendia azoketako zinegotzia «gustura» azaldu zen azokak izandako harrerarekin; «guraldia lagun jende ugari izan da, eta azokako parte-hartzaileak ere oso pozik geratu dira».

**» ODOLKI LEHIAKETA**

- 1. Ormaiztegiko Iñaki Campos harategia.
- 2. Orioko Kepa Loidi harategia.



Goian, Odolki Lehiaketako sari banaketa. Behean, jendea San Frantziskon eta Plaza Zaharrean. **EZEIZA / R. CALVO**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**@ Ikus-entzunezkoak.** TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren webgunean ikus-entzunezko ugari topatuko dituzu. Festen edota ekitaldi berezien bideoak ditugu ikusgai, eta baita eskualdeko bestei esanguratsuak ere. Horretaz gain, argazki bilduma handia dugu herriko, atal-ka nahiz ekitaldiak antolatuta. Sarzaitze gure webgunean eta aipaturikoak ikusi ahalko dituzu. Horrez gain, parte hartzeko hainbat atal ere baditugu, eztabaidak eta inkestengunea, esaterako:

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)



# Presoen eta iheslarien eskubideen alde irtengo dira Aiztondon hilaren 31n

**Politika** » Manifestazio isila 19:00etan irtengo da Villabonako plazatik. Herria zeharkatu ondoren Zizurkilen amaituko da.

## ASIER IMAZ

Aiztondo bailarako presoen eta iheslarien senideek eta lagunek, manifestazio isila antolatu dute hilaren 31n, ostegunean. Martxa Villabonako plazatik irtengo da 19:00etan eta Zizurkilen amaituko da.

Aurkezpen ekitaldian bailarako herritar eta eragile ugariaren babesa jaso zuten atzo ekimenaren bultzatzaileek. Jone Etxeberriak, Julen Zelarain presoaren emazteak, azken hilabeteetako «oinarriko



Aiztondo bailarako herritar eta eragile ugari elkartu ziren atzo. HITZA

eskubideen zapalketa» salatu zuten: «Aurrez aurreko bisitetara sartu aurretik, kartzelariak haur, gazte nahiz urteetan aurrera egi-

nak dauden senideak miatzen saiatzen ari dira. Miaketa arbitrario horien ondorioz, bisita asko bertan behera geratzen ari dira,

gure sufrimendua oraindik eta gehiago areagotuz; gure senideekin aurrez aurre egoteko dugun aukera bakarrari uko egitea suposatzen baitu, miaketa umiliagarri horiei uko egiteak. Halaber, gure senide euskal preso politikoak, hori guztia salatzen borrokaldi berriak egitera bultzatzen ari dira».

Etxeberriak Villabonako hainbat euskal presoren adibideak aipatu zituen ondoren: «Huelvan dituzten euskal preso politikoak, tartean, Julen Zelarain billabonatarak, uko egin diete aurrez aurreko; Emilio Salaberria duten Curtis Texeiroko kartzelan, itxialdia burutzen ari dira presoak; Eneko Galarragak, Ocañako espetxean, azken bi bis-ak galdu ditu, bere seme eta emaztearekin, katxeoa

eskatu zutelako funtzionarioek eta Mikel Garmendia ere bisik gabe dago arrazoi berdinegatiko».

## Babes zabala

Presoen eta iheslarien senideei eta lagunei babes emateko asmoz, herritarrak, eragile desberdinetako ordezkariak eta bailarako hainbat hautetsi elkartu ziren atzo Bear Zana frontoian, tartean Larraul, Alkiza eta Adunako alkateak.

Guzti hauen izenean Amaia Agirrebetsolariak ondorengo aldarrikatu zuen: «Espainia eta Frantziako Gobernuak espetxe politika errotik aldatu behar dute. Sakabanaketak gaur eta orain amaitu behar du; euskal presoak dagozkien eskubideen jabe Euskal Herrira orain ekarri behar dituzte. Isolatutik eta bakartutik diren presoak, beste preso kideekin ezarriak izan behar dute. Biziarreko zigorra indargabetu behar da».

Atxikimendua azaltzearekin batera, agerraldira joan zirenek bailarako herritar guztiei manifestaziora joateko eskatu zieten.



Leitzaldeko Bilgune Feministak eskaini zuen hitzaldia. A. IMAZ

## Publizitate sexistaren aurkako hitzaldia atzo Leitzako Gaztetxean

### A. IMAZ

Atekaldeko gaztetxean hainbat ekitaldi antolatu dituzte abenduan, «Gabonetako kontsumismotik urruntzeko asmoz». Atzo Leitzaldeko Bilgune Feministak hitzaldi interesgarri bat antolatu zuen bertan, *Publizitate sexistarik ez!* lelopean.

### Hausnarketarako datu ugari

Publizitateak beti sortu izan ditu zalantza: Nork? Norentzat? Zergatik? Bilgune Feministak, euren ikuspuntu ardatz hartuta, argi dauka erantzunak: «Iragarkiak publizitate agentziek sortzen dituzte, eta haiek dira emakumeak jasaten duen itxuraldatzearen erantzule»; «Gizonak emakumeekiko maila menperatzailean kokatzen dituzte, honek saltzen duela, jendartea estereotipo hauekin hezi eta sozializatu delako»; «Hedabideek publizitate mota hau mugatu egin beharko lukete».

Bestalde, Bilgune Feministak haurrei zuzendutako publizitate sexistaren aurkako kanpaina jarriko du abian. Eskaerak hiru norabidetan zuzenduko dituzte: jostailu eta publizitate sortzaileei, instituzioei eta gurasoei.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak etab. garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Gurutze: 638 94 46 04 / Be-len: 695 70 82 71.

### SALGAI

■ **Su egurra.** Su egurra salgai, 20, 30 eta 40 zentimetrora moztua. Etxera eramaten dugu. Harremanetarako telefono zenbakia: 615 75 57 62.



## Errotaren nondik norakoak ikusiz

**ALTO** » Olentzeroren jakin-minak Alto Azpiko Errortara eman zituen 10 lagun atzokoan. Bertan errotaren funtzionamendua entzun eta ikusteko aukera izan zuten. XIII. Olentzerotan Jakinminez ekimenak bertso-

larien berotasunean izan zuen jarraipena, izan ere, Sustrai Colina, Ainhoa Agirreazaldegia eta Imanol Lazkano bilakatu ziren protagonista iluntzean, hitz zartuaren lehenik eta bertso afarian ondoren. I. TERRADILLOS

Zure negozioa ulertzen dugu

**Ibilgailu Komertzialen Gama**

**TOLOSA MOTOR, S.A.**  
San Esteban auzoa, 14 - A • 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38 • e-mail: tolosa.tolosa.redpeugeot.com

## E Elkarrizketa

AITOR MENDILUZE Bertsolaria

**Irura»** Astebete pasatu da Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finaletik; egun horren eta Txapelketaren inguruko hausnarketa egin du Mendiluzek.

ESTI EZEIZA-IMANOL GARCIA

Aitor Mendiluzek zazpigarren postua eskuratu zuen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan. «Oso gustura» dago finalean egindakoarekin eta bertan bizitako nabarmendu du.

**Egun batzuk pasatu ondoren, nola gogoratzen duzu finaleko eguna?**

Handia izan zen, izugarria. Nik aurreko bi finaletan baino jakitunago izan nahi nuen final honetan, gehiago bizi mementoa, eta izugarri gozatu nuen une bakoitza. Ikaragarria izan zen bertan bizi izan genuen lotura, giroa, jendearen berotasuna, elkarrekiko atxikimendua... dena. Izugarria.

**Zer iruditzen zaizu lortu zuen postua?**

Ni oso gustura nago. Denetarik entzun dut egun hauetan, baina egia esan ez zait postua gehiegi axola, han bizi izan genuena saikapenetik haratago doala sentitzen dut eta dugu. Gera nintkeen aurrerago edo atzerago, baina betealdi horren ondoren hamargarren jarri banindute ere pozik eta harro sentituko nintzatekeen.

**Tentsio pixka bat falta zitzaizula azaldu duzu. Zergatik gertatu zela uste duzu?**

Ez dakit, eguneko nekea, mementoaren handitasuna, giroa... Egia esan ez dakit, baina ez da gehiegi kezkatzen nauen zerbait. Batez ere eguerdi aldera nabaritu nuen tentsio beheraldi hori, eta aurrez ere banekien gerta zitekeela, egun osoan tentsio berari eustea oso zaila delako. Memento ezegokia eto-

# «Ikaragarria izan zen bertan bizi izan genuena»



HITZA

ri zitzaidan agian, besterik gabe. Kartzelan ere denbora luze egiten da, eta horrek ez dizu laguntzen, eta irteten zarenako jendeak bukatzeko gogoia dauka, eta zuk ere bai, eta batzuk badoaz, eta... batek daki.

**Ze bertsorekin gelditu zinen bereziki gustura?**

Ez daukat bat konkretuki buruan, gehiago doa bertsoaldika. Goizeko lehen bi lanekin geratu nintzen agian gusturago goizean, arratsaldeko bakarkakoarekin ere bai arratsaldean...

**Ariketaren batean huts egin zenuela uste duzu?**

Goizeko kartzelan bai. Azken bertsoak alde egin zidan, eta horrek kartazko gaztelua bota zuen. Bukarek justifikatu behar zuen dena, eta han oina aurretik sartu eta dena unean bertan aldatu behar izan nuen, eta hankamotz gertatu zitzaidan diskurtsoa. Lastima.

**Oholtzatik ere ikusten zen buruz burukora Lujanbio eta Arzallus pasatuko zirela?**

Nik ez nituen goizeko bakarkakoak entzun, baina biak oso ondo ari zirela ikusten zen, bai. Hala ere, ez ziren ondo ari ziren bakarrak, eta goian prespektiba galduta egiten da gainera. Ez neukan garbi.

**Zer ditozte txapeladun berriak buruz?**

Izugarri poztu nintzen eta ginen denok, eta ez Maialenengatik bakarrik, baita Ametsengatik ere. Maialenen kasuan bere bideak, garapenak eta ausardiak moldeak hautsi dituztela garbi daukagu, eta txapel hori lehenago edo beranduago iritsiko zela. Agian mementoa, orain prest dago txapeladun izateko.

**Eta hemendik aurrera txapelketetan gehiago ariko ez den Egañari buruz?**

Txapela kentzekoa izan zen eta

izan da, onena izan da hainbat urtetan, eta oholtzan dotorezia horrekin azaltzea eta txapela bera jokoan jartzea oso gutxi ere esku dagoen maila bat erakustea da. Zerbaitetik miresten dugu hainbeste.

**Txapelketa oro har hartuta, zein dira gelditu zaizkizun sentsazioak?**

Oholtzan gustura sentitu naiz, eroso eta nere lekuan, eta bertsotan egin dudun pausoaren zantzuak utzi ditudala uste dut. Finalean zenbaitek gehiago espero omen zuten nigandik, eta horrek esan nahi du dezakedanaren irudi bat utzi dudala behintzat, beraz alde horretatik gustura. Finala egin zitekeen hobe ere, baina finala dena da, bertso on eta txarrak, eta denekin geratzen naiz.

**Bertsolariek antzeko doinuak erabili zituzten finaleko ariketan. Doinu gehiago eta berria-**

**goak erabili beharko zirela uste duzu?**

Doinuak bertsoaren lagungarri izan behar du, ez traba, eta bertsolariak eroso aritu behar du doinuarekin. Kontua ez da doinu berriak edo zaharrak gehiago edo gutxiago erabili behar genituela finalean, orokorrean doinutegia zabaltzea baizik. Hala ere, ahalegin kontziente bat egon zela eta badagola uste dut, eta hori positiboa da. Orain bere denbora utzi behar zaio emaitzak ikusteko.

**Orain lau urteko bertsolari berriak, bat ezik, izan zarete finalean. Aldaketarik edo eboluziorik ikusi duzu bertsolarietan, zu barne, lau urte hauen ondoren?**

Noski baietz, aurretik ere esan nuen finalean ez zela bertsolari bat aldatu, izen bat eta zortzi bertsolari baizik. Bakoitzak bere bidea egin eta egiten du, eta bide horretan puntu ezberdin batean harrapatzen zaitu txapelketa bakoitzak. Aldatuko ez bagina seinale txarra litzateke.

**Aurrera begira erronkarik baduzu Txapelketa Nagusian?**

Ez daukat txapelketarako erronkarik, bertsotarako baizik. Bertsotan hobetzen eta fintzen jarraitu nahi dut, neure onena bertso bakoitzean eskaintzen eta batez ere bertsotan gozatzen plazaz plaza.

**Hara zer dioen Unai Elorriagak zuri buruz artikulua batean: «Aitor Mendiluzeren bertsokera egunegun-egun estimatzen dut gehiago. Ondo harilkatua, alferreko ezer ez duena. Mendiluze existituko ez balitz, halako bertsolari baten zain egon beharko genuke». Zer iruditzen zaizu?**

Unai badaki bertsotan aritzea zer den, bera ere aritua baita. Asko eskertzen diot esaldi hori, bakartasunak nortasuna adierazten duelako, eta hori da sortzaile bati esan dakiokeen gauzarik politenetako bat, estilo bat edo nortasun bat duela, are gehiago esaten duenak berak baduela erakutsi duenean. Mila esker Unai, eta besarkada bat.

## H Hilberriak

## JOSE LUIS IRISARRI MALKORRA

Joan zara baina gure artean izango zaitugu beti.



Zure lagunak; Joxe Mari Ayestaran eta Amale Zinkunegi.

TOLOSA  
2009ko  
abenduen 20a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA  
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 • 20400 TOLOSA  
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719  
WWW.FUNERARIASVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

# Urtea ezin hobeto amaitzeko, jada ohitura diren Urte Zaharreko krosak

**Kirolak** » Aurten ere ez dute hutsik egingo urteko «lasterketa herrikoienek»; Villabona-Zizurkilen izango da bat, eta Tolosan bestea.

## ERREDAKZIOA

Jende gehienak mahaiaren bueltan ematen dio amaiera urteari. Mahatsak presaka eta korrika janaz ematen diogu ongi-etorria garai berri bati. Hau da Euskal Herriko eta eskualdeko etxe gehienetako ohitura. Baina bada gero eta babes handiagoa jasotzen ari den beste tradizio bat ere, Urte Zaharreko lasterketena, hain zuzen. Tolosaldean nahiz Leitzaldean, herri askotan ospatzen da San Silbestre eguneko krosa.

Eskualdean parte-hartzaile gehien izaten dituzten krosak Villabona-Zizurkilgoa eta Tolosakoa dira. Lehendabizikoa Urkamendi eta Zumbeltz elkarteek antolatzen dute, eta bigarrena berriz, Samaniego-Orixe ikastetxeok eta Tolosako Udalak.

## XII. Elkartasun Krosa

Hamabigarrenez Tolosako kaleetatik barrena, elkartasuna ardatz hartuta, ehunka lagunek hartuko dute parte Samaniego-Orixe ikastetxeak antolatutako krosan. Urteik urtera geroz eta jende gehiago hartzen du parte lasterketa herriko honetan. Aurteangoan hala ere, antolatzaileek deialdi berezia egiten diete emakumei. Udaleko



Joan den astean, Samaniego ikastetxeok eta Udal ordezkariak aurkeztu zuten Elkartasun Krosa. E. EZBIZA

kirol sailak eta berdintasunekoak egin dute bat nesken parte-hartzea bultzatzeko.

Benjamin, alebin, infantil eta helduen taldeetan banatuko dira parte-hartzaileak. Txikienak, 15:30ean abiatu dira Zerkausitik, eta hurrengo mailatakoak, ordu erdiro. Proba herriko bat denez, antolatzaileek parte-hartzea bultzatu nahi dute eta ez «izugarriko markak egitea». Hori dela eta, korrikalarien artean hainbat sari banatuko dituzte. Opari ugari ere zozketatuko dituzte.

Urtero bezala Elkartasun krosan biltzen duten dirua Guabas errekararen inguruan (Kolonbia) bizi den komunitateko *Mando liburuzaina* proiektuaren jarraipene-

na egiteko erabiliko dute. Duela lau urte abiatu zuten ekimena Samaniego ikastetxeok, eta orain hura elikatzen jarraitu behar dute la diote. Mandoa jada lanean dabil, herriz herri liburuak, aldizkariak, egunkariak... banatzen, izan ere Samaniego ikastetxeok azaldu-takoaren arabera, proiektu kultural zabalba da.

Helduen mailan korritu behar dutenek, izena hilaren 29ra bitartean Aralar kirolak dendan edota egun berean, Zerkausian, eman ahal dute.

Beste kategorietakoek berriz, hau da, gaztetxoek, alde aurretik ikastetxeetan eman dezakete izena, eta baita Zerkausian ere, hilaren 31n.

## Villabona eta Zizurkil arteko lasterketa

Urtea ongi amaitu eta berria hobeto hasteko, XXVI. Urte Zaharreko lasterketa ospatuko da Villabona eta Zizurkil artean.

Amaitzean, urtero bezala, sari banaketa egingo dute. Krosa 16:00etan hasiko da benjaminekin; alebinen txanda 16:10ean izango da; infantilak eta kadeteak 16:28an abiatuko dira; eta jubentilek, nagusiek eta beteranoek 16:30ak arte itxaron beharko dute.

Kategoria bakoitzeko lehenengo gizonetako eta emakumezkoari garaikurra emango diote. Proba nagusian berriz, bigarren gizonetako eta emakumezkoek afarirako gonbitea jasoko dute.

## » ZENBAIT DATU

### XII. Elkartasun Krosa

- **15:30.** Benjaminak (800 metro).
- **16:00.** Alebinak (1.600 metro).
- **16:30.** Infantilak (2.900 metro).
- **17:00.** Helduak (5.050 metro).
- **Izen-ematea.** Helduek abenduaren 29ra bitartean Aralar Kirolak dendan, edo lasterketako egunean, Zerkausian. Gazteenek, alde aurretik ikastetxeetan, eta baita Zerkausian ere, egun berean. Helduek 5 euro ordaindu beharko dituzte eta egunean bertan, berriz, 8 euro. Haurrek dohainik izango dute izen-ematea.
- **Antolatzailea.** Samaniego-Orixe ikastetxea eta Tolosako Udala.

### XXVI. Urte Zaharreko Lasterketa

- **16:00.** Benjaminak (800 metro).
- **16:10.** Alebinak (1.600 metro).
- **16:28.** Infantilak eta kadeteak (3.500 metro).
- **16:30.** Jubentilek (5.250 metro).
- **16:30.** Proba nagusia eta beteranoena (35 urteko gorakoak). Zazpi kilometro.
- **Izen-ematea.** Urkamendi elkartearen eta [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com) webgunean egin daiteke dohainik.

Honez gain, hamar afariren zozketa egingo da parte-hartzaile guztien artean.

Bestalde, joan den urtean, 25. urteurrenean, hain justu, krosaren webgune berezia abiarazi zuten eta aurten ere martxan da. Helbidea [www.picasaweb.google.es/urtezaharkrosa](http://www.picasaweb.google.es/urtezaharkrosa) da.

Bertan aurreko krossetako argazkiak ikusi daitezke eta, aipatu bezala, aurteangoaren argazkiak ere sartuko dituzte urte berria hasiarekin batera.

# 12 urte arteko eskola eskatu diete Olentzerori eta Mari Domingiri

**Larraul** » Eskola bere etorkizuna lantzen ari da eta Guraso Elkarteak urte berrirako eskaria zein den argi dauka.

## ERREDAKZIOA

Gabon hauetan Olentzerorekin batera lagun berria joan da Larraulgo Eskolara bisitan: Mari Domingi. Haurrek pozez gainezka hartu dute bi lagun hauen etorrera, hori bai, lanean harrapatu dituzte: Gabon kantak ikasten eta etxekeoi erakusteko lanak prestatzen.

## Urte berrirako eskaria

Guraso Elkarteak azaldu duenez, Larraulgo Eskola bere etorkizuna lantzen ari da: «2009ko apirillean, 2010-11 ikasturtean 12 urte arteko eskola propioa izango genuela



Olentzero eta Mari Domingo joan dira Larraulgo Eskolara. HITZA

adierazi zitzaigun Hezkuntza Sailetik. Ordutik 2 bilera baino ez dira egin eurekin, eta ez dugu idatzizko erantzun seriorik jaso. Hau dela eta, antzeko egoeran dauden beste eskola txikiekin bat egin dugu da-

gokiguna pausoz pauso lortzeko. Eta horixe da urte berriari eskatzen dioguna: Larraulgo herriarentzako hain garrantzitsua den 12 urte arteko eskola laster egi bihurtzea».

Eskuratu **2009**ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko **DVDa berria** rekin

gogoratu noiznahi historia egin duen Txapelketa

2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko Bertsolariak 2 DVD-tan

ABENDUAREN 24TIK AURRERA, zure kioskoan

**berria** + 12 €

Baduzu zer oparitu Gabon hauetan!

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**



4°  
0°

GOIZA	ELURRA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	7°
HOTZENA	6°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitateak:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



## Eskualdeko ugari manifestaziora

**TOLOSA** ■ Milaka lagunek egin zuten bat atzo Bilbon *Egunkaria*-ren alde deitu zuten manifestazioarekin. *Egunkaria auzi*-ko bost auzipetuei elkarrtasuna adieraztea zuen helburu deialdi honek, eta espero zuten bezala milaka herritarren parte-hartzearekin erantzun zuten. Euskal Herriko nahiz kanpoko herritar ugari izan ziren bertan, eta Tolosaldeari dagokionez, bost autobus behintzat bete ziren Bilboko manifestaziora joateko. i.r.

## A Agenda

### Deialdiak

- **Alegia.** 16:30etik 20:00etara Alegiako plazan gaztain erreak eskainiko ditu Udalak.
- **Tolosa.** Txaranga Eguna Erramun Oiarzabalaren alde: 12:00etan 12 txaranga aterako dira Alde Zaharrean, 14:00etan plaza Berrian elkartu eta kalejira egingo dute Zerkausiraino.
- **Alkiza.** Eguberritako jai egunak direla eta, Alkizako liburutegia bihar eta 28an goizeko 10:00etatik 13:00etara irekita egongo da. Urtarrilaren 4ean eta 7an berriz, itxita egongo da.
- **Tolosa.** Aiz Orratz Elkarteak bere kideei izena emateko eta argazkiak jasotzeko epea hilaren 29an amaituko dela gogorarazi nahi die.

### Azokak

- **Tolosa.** Bedaioko Azoka Berezia.
- **Irura.** Bidezko Merkataritzaren azoka San Miguel plazan 11:00etan.

### Zinema

- **Leitza.** *Olentzero eta oparinen ordua* filma zinema 17:00etan. Sarrera doan da.

### Kontzertuak

- **Tolosa.** Kea ahots taldeak Javier Bello-Porturen doinueta oinarritutako CDa aurkeztuko du kontzertu batean Topic-en 12:30ean.

### Tailerrak

- **Larraul.** Postal tailerra hilaren 30ean Larraulgo liburutegian 11:00etatik 13:00etara. Izena emateko epea bihar bukatuko da. Informazio gehiago eskuratzeko 943 693930 telefono zenbakira deitu ahal da.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

### » TELEBISTA

- 28 Kanala**
- 08:30.** Zahar berri.
- 09:00.** Nonochan.
- 09:30.** Tolosaldean Gaur.
- 10:00.** Kalekanto.
- 10:30.** On ein!
- 11:00.** Klipak
- 11:30.** Tolosaldean Gaur.
- 12:00.** Artegitza.
- 12:30.** Triki traka tron.
- 13:30.** Mendialdean bizi.
- 14:00.** Bertsolari Txapelketa BEC 09.
- 15:30.** Gipuzkoako kultura.
- 16:00.** Erioklip.

(\* 12:30etik 16:00etarako blokea 4 orduko errepikatuko dute)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneri eta iritzien erantzukizunik.

## A Agurrak



### Zorionak!

**Jexux Ormaetxea (Alegia).**  
Zorionak zure urtebetetzeari Muxu asko Nerearen partetik.



### Zorionak Txomin!

**Txomin Urdanpilleta Mujika (Anoeta).** 11 Muxu handi etxekoaren partetik.



### Zorionak Amagoia!

Beti geldituko zaigu Paris.  
Maite zaitut!

agurrak

urtebetetzeari - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behe
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

Abenduak 26, 18:00etan  
**BELODROMO DONOSTIA**

**SARRERAK**  
GIPUZKOA: Kutxi (Hernani), Leandro (Arañeta), Zuremoto (Leakoa), Automoto (Donostia), Askain (Andoain), Sal Factory (Iruin), Zetia (Zamarraga)

**DENDAK**  
GIPUZKOA: Kutxi (Hernani), Leandro (Arañeta), Zuremoto (Leakoa), Automoto (Donostia), Askain (Andoain), Sal Factory (Iruin), Zetia (Zamarraga)

www.donostiafreestyle.com